

# Ikustaldi bat Brusela'ko Unibertsidadean

Ikasleek «okupatutako» U. L. B. dalakoa ikusi dut. Eta joana ez zait damutu: ikustamen bat baiño gehiago balio zuen.

«Okupat aille» en buruzagi bat gela nagusiko erdian oheratuta aurkitu dut gaueko hamar t'erdietan: atzenda, beraz; baiñan esnai. Bere ezker aldean telefono bat ixillik, telefonoa ebakita egon baita ikasleen aginduz. Bi irakasle ohearen esku aldean exerita, eta hamar bat gazte inguruan: neska eta mutil, patxaran berriketan. Zoko batean bi ikasle batera piano bat jotzen ari («jo» hitza funtsezko adierazkizunaren araber hartu behar da kasu huntan...) «Okupaldia» azkenetan zegoen: handik bizpahiru egunetara Leclercq Sekretarioak ikusiko zituen lekua. U. L. B.-ak istillu handiak ezagutu ditu, eta hitzaldi beroak; baiñan ez da iñoiz egon Nanterre'ko eta Sorbonne'koen mailan. Azkeneko okupatzaileen artean, bizartsu asko, eta galtzetan jantzitako neska batzuk. Gebienak eta gogorrenak atzeritarrak: ikasleen «ordenu»-ko taldean 20 lagun izanik, 14 bide ziran atzeritarrak, buruzagia barne. Paris'en eta Brusela'n, Maiatza'ko «erreboluzioa» kanpotar ikasleek bultzatu bide dute.

Pareta guzietan erreboluzio-esanak nagusi, gehien-gehienak frantsesez.

Pasillu batean, gezi baten gai-

ñean, (argibide gaisto hau: «Les pissotieres se trouvent au Conseil d'Administration». Beste batean, umore handian: «Violons les murs vierges». Aurrerago, utopia betean: «Ne travaillez plus; «...Umorea eta kupidarik gabeko ziriak beti nahasirik. Pareta guzi-guziak letreroz josirik. Harritzekoa ez da: Brusela'ko Unibertsidadeak irautdu baitu luze-enik azkenean «libro» modura.

Letroroen muñean, nik uste, bi kezka nagusi, eta desberdin xamarrak: 1. Kapitalismoa ankar gora bultzeko gogo bizia; 2. Teknika-aurrerapenak aski ez izatearen susmoa.

Hitzek hitz danak hemen itzultzea ezina zait: luzetasunaz gain, hitz askoren gordinkeriak debekatuko lidake. Esaera askoren ondorioztat, ordea, hau irakurri nuen gutxi gorabehera pareta-zoko batean: «Ba dut, beraz, automobila; ba dut telebista! ba dut hori guziaz azkenean. Baiña, zer? Lehen bezela, nere bizimodu tentel baten bizimodua da». Eta hauxe da, nik uste, gertaeren kaxoa: gure zibilizazioak ez du gaudia betetzen, eta ez gutxiagorik ere.

Hau oso larria da, oso sakona da. Maiatza'ko gertaerak ez dira izan barne-gertaerak, «intra»-gertaerak, gure soziedadearen barneko eskabideak; gure soziedade OSOAREN KONTRAKO lehtzapen bat baizik. U. L. B.-ko pasilluetan zehar irakurri ditudan letreroek UKATU egiten

dute gottik-behera gure soziedade; eta, alde huntatik, erreboluziozaleak dira. Ez dut iñoiz irakurri, irain bortitza gorik Belgika'ko partidu guzien kontra, pareta haietan irakur zitezkeanak baiño. Gauza bera beste sail askotan: dana kondenatu da.

Harrigarriena, halere, ikasleen baikortasuna iruditu zait: dana ankar gora bota nahirik ere, dana konpontzeko itxaropena beti agerrian. Kotxea, telebista, eta abar, lortu ondoren ere, «tentelen» bizimodua omen daramakigu; baiñan itxaropena ez omen da galdu behar: Erreboluzioa egiñez konponduko ditugu danak.

Lehen jendea komentura edo mortura edo Himalaya'ra joaten zan halakoetan; gaur barrikadetara. Lehen ziurtzat zeukaten zuhurrek munduaren ezin konpontzea; gaur ziurtzat daukagu konpon ditekela. Kapitalismoaren kontrako Erreboluzioa egin ezker (erreboluzio bkaar bat egin omen ditekela) dana konponduko da. Hau ez sinistea alienaturik egotea omen da.

Ba dago «fede» hortan, nere ustez, oso aldakuntza sakon bat: XX-gn. mendeko ikaslea baikorra da, iñoiz baiño baikorrago beharbada. Gure gaitz guziaz ekonomi-moldabidetik datozela sinisten baitu.

Baiñorkeria horren gehiegikeriak, halere, nabarmenegi daude.

Evald Schorm'en filma berriak,

«Le Retour de l'enfant prodigue» frantsesez, Txekoslovakia'n egiña, ez burges-erresuma batean beraz, U. L. B.-an eta Nanterre'n salatu dan hutsune berbera salatu du Txekoslovakia'z pentsatuz. Kapitalismoaren zapaltzeaz bestaldera, hortaz, europar gizonak biziaren problematasun sakon berbera aurkitu du.

U. L. B.-an, eta bestetan, utopia eta eginkizuna, ameskeriak eta sozialisismoa, nahasirik agertu dira; eta hunek farragarri utzi du mogimendua eskuindarren artean. Oso tamalgarria da. Salatu diran akatsak, salatu dan burokrazia batez ere, ego ki salatu izan da: geuk ere salatu izan dugu.

Itxaropenak, ordea, zentzugabeak diranean ustekeria bihurtzen dira; eta, gerora, hamaika etsipenen guraso. Ametsak obrakizun iriztea, ez da iñoiz izan ez bide burutsua eta ez prestua. Egia lehenik.

Gizonaren arazoak eta kezka bideak ez dira danak kapitalismoaren ondorio. Hau ez da egia. Kapitalismoaren bidegabekeriak osoki kondenaturik ere, kapitalismoaren arrastorik ez utzirik ere, gizonaren barne-egarian besterik dagoela esateko momentua iritxia da. Gizonaren problema ekonomi-moldabideen problema baiño zailagoa da; eta soziedadearen problema ere bai. Ekonomi-demokraziarik gabe ez dago zuzentasunik: hau garbi dago.



Baiña utopismoa utopismoa da, ameskeria ameskeria; eta barkatu ezia da gezurrá eritea.

LARRESORO

serapiñ

(La Vie Catholique 'rik)

## BIZITZEN IKASI NAI DET

Ez dakit ludi ontan gauden bitartean, bear bezelako bizitza eramanen ikasiko detan. Baiñan alegiñak egin nai nituzke, nere bizitzak sentidu pixka bat izan dezan.

Batez ere nere aldamenen ditudan, gañuntzeko gizonaren sustraiarekin bizi bear detan ezker, bere problemak nereak izan nai nituzke. Modu ortara nereak, bestearenak izango diran itxaropenekin biziko nintzake.

Alkar laguntzan, burruka bizian, gaitzak oinperatuz, eta egintza onaren bideak zabalduaz; orrela jarrai nai nuke. Bakarrik, gauz pitin bat bezela arkitzen bai naiz.

Zaarrei esperientzia eskatuko nioteke, beren bizitz luzean arkitutako trabaren berri jakin nai nuke, ez det, eta ez nuke nai, beren aldamenetik igesi egitea. Beren konsejua bear det, konseju mamitsua, garrantzizkoa, egiakin dijoana.

Gazte naiz, eta orain berritri asi zaizkit begiak erekitzen; beragaitik, ni baiñon zaaragoari argia eskatu nai nioteke.

Nere edadeko gazteen eginkizun jator eta sakonak ikasi nai nituzke, burruka zuzen bat egiteko prest dagoztenekin ibili nai nuke.

Agintariari: politika, ekonomi, kultura eta beste edozein gai sakon, ikasi, eta billatzeko bidea eskatzen diet.

Bai, ori dana bear det, bear bezelako bizitz bat eramateko; baiñan geiegi eskatu ote detan, kezka daukat. Ala guztiz ere, gizarteari nere indar

pitin baiñan sendoa eskeintzen diet; indar orrek bere bidea jarraitu dezan. Bide zuzena, gizon egitea eramango nauena.

Len esan det gaztea naizela, eta orregaitik, oraindik ez det benetako edo bear bezelako oiñarria arkitu, eta ez da arritzekoa nere gizatatasuna aula eta eskaxa izatea. Ez nuke astakeririk egin nai, orregaitik laguntza eske nabil. Benetan bearrezkoa iruditzen zaidalako, nere askaxtasun ori sendotu nai det, eta laguntza guztia ez da degiegia izango.

Euskal errian ikusi nuan lendabiziko aldiz argia, eta bertan bizi bear detan eskeroz, erri oneri, egin bide batzuk zor dizkiot.

Bertan, ikusi det konponketa batzuetara iritxi naiean, gizonak lanean ari dirala, nik ere ez det burruka orretatik aparte, urruti, egon nai; nere erria da, eta maite detalako berarekin josita egon nai det.

Nere egoera onetan, naiz ziurki ez egon, baliteke beste gazte azko ere, ni bezelako kezkaekin arkitzea, eta orretarako ez det beste soluziorik arkitu edo sumatzen; bizitzaren berri ondo eta zuzen dakinena, erakutsi dezatela beren lezioa, eta lezio ori billatzen ari gerantzako, begiak erne eta ondo zabalduak edukitzea eldu zaigu.

Soluzio onek baliteke eragozpen batzuk izatea, bat gure gerekoitasuna izango litzake, baiñan mundu onetara zerbaite egitea etorri gerala uste det, eta zerbaite ballatu nai badegu, ez dago dudarik ikaskizuna bearrezkoa zaigula, neretzako beñepin orixe eskatzen det.

RAMON ZAPIRAIN

Asteazkenero, gabeko amaiketan, SER katearen bidez eta beste España'ko irratsaio batzuen bitartez

# Coca Cola'k eskeintzen dizuen irrati-aldia